

# ANEXO I

## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILOIA

### Urteko/ikasmailako programazio didaktikoa

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	Uribe Kosta BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Batxilergo	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	1
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Euskal hizkuntza eta Literatura		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	Hizkuntzak, Geografia eta Historia eta IKT		
<b>diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	-Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako konpetentzia -Teknologiarako konpetentzia -Konpetentzia sozial eta zibikoa		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Eloie Basañez Llantada	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2018-19

#### Zeharkako konpetentziak

##### 1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

##### 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeko.

##### 3. Elkarbizitzarako konpetentzia

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.

##### 4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia

Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko. Izaten ikasteko konpetentzia.

##### 5. Izaten ikasteko konpetentzia

Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzen.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea, gizartearen eta kulturaren hainbat esparrutakoak, batik bat ikaskuntzaren eta hedabideen arlokoak, bakoitzaren komunikazio-berezitasunak kontuan hartuz eta haien edukia modu kritikoan interpretatuz, hainbat komunikazio-egoerari ganoraz aurre egiteko.</p> <p>2. Modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta interaktuatzea, ahoz nahiz idatziz, batez ere ikaskuntzaren arloan, errespetuz, elkarlanean eta espiritu kritikoarekin, hainbat komunikazio-egoerari eta -helbururi ganoraz aurre egiteko.</p> <p>3. Hizkuntzaren osagaiei buruz gogoeta egitea, eta kontzeptu nahiz prozedura egokiak erabiltzea testuak hobeto ulertu, aztertu, iruzkindu eta sortzeko, eta ikasitakoa hobeto transferitu ahal izateko hizkuntzen artean.</p> <p>4. Literatura-testu erreferentzialak irakurtzen gozatzea, modu autonomoan, beste mundu eta kultura batzuk ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko.</p> <p>5. Euskal literaturaren aldi, obra eta egile nagusiak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko, informazio-iturri analogikoak nahiz digitalak erabiliz, modu kritikoan.</p> <p>6. Literatura-lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, haien arte-izaeraren elementuak identifikatuz eta lan horiek kultura-tradizioarekin lotuz, haien bidez proiektio indibiduala eta kolektiboa ezagutzeko, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko.</p> <p>7. Euskal Autonomia Erkidegoko elebitasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, era horretan hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko.</p> <p>8. Eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna aztertzea eta interpretatzea, soziolinguistikako ezagueren bidez, haiekiko errespetua eta jarrera positiboa izateko.</p> <p>9. IKTak autonomiaz, modu kritikoan eta etikoan erabiltzea, informazioa eskuratu, hautatu eta prozesatzeko, eta gizarte- eta</p>	<p>1. Zenbait erabilera-eremutako ahozko eta ikus-entzunezko testuak interpretatzea eta balioestea, eta horretan, bereziki kontuan hartzea hezkuntzan sarri-sarri erabili ohi diren azalpenezko testuen funtzio soziala.</p> <p>2. Curriculumeke edukiekin lotutako ahozko aurkezpenak egiten jakitea, eta horretan, alde aurretik prestatutako eskema bati jarraitzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.</p> <p>3. Modu aktibo, erreflexibo eta pertinentean parte hartzea ikaskuntza helburu duten ahozko interakzioetan.</p> <p>4. Zenbait erabilera-eremutan erabili ohi diren euskarri digital eta analogikoko idatzizko testuak interpretatzeko eta balioestea, eta horretan, bereziki kontuan hartzea hezkuntzan sarri-sarri erabili ohi diren azalpenezko testuen funtzio soziala.</p> <p>5. Aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz, gaurkotasan handiko gaiei eta curriculumarekin, hizkuntzarekin nahiz literaturarekin lotutako gaiei buruzko idatzizko testuak zorrotz, argi eta akatsik gabe ekoiztea (hezkuntzan sarri-sarri sortu ohi diren azalpenezko testuak, batik bat).</p> <p>6. Testuak interpretatzean eta sortzean (hezkuntzan sarri-sarri sortu ohi diren azalpenezko testuak, batik bat), hizkuntzaren planoei buruzko ezaguerak modu erreflexiboan identifikatzea eta erabiltzea.</p> <p>7. Ikasturtean zehar landutako literatura-lan eta -pasarteetako edukiak interpretatzea, eta horretan, literatura-formei, -garaiei eta -egileei buruzko ezaguerak erabiltzea.</p> <p>8. Ikasturtean landutako garai eta mugimenduetako lanik adierazgarrienak irakurri ondoren, testu-iruzkin kritikoak egitea.</p> <p>9. Informazioa bilatzean, aukeratzean, komunikatzean eta zabaltzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo, eraginkor eta kritikoan erabiltzea.</p> <p>10. Hizkuntzak ikasteen tartean diren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, eta horretan, konfiantza izatea bere gaitasunetan.</p>

kultura-bizitzan komunikatzeko eta kooperatzeko.

10. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta autorregulazioa sustatzeko eta gero eta autonomia gehiagoz ikasteko konfiantzarekin.

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguaren daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

- **1. arazo egoera :Zergatik ez dugu euskaraz egiten?**

Xedea: Euskararen erabilpen-maila aztertu eta euskara ez erabiltzeko dauden arrazoirik nagusiak identifikatu eta gero, erabilera sustatzeko publizitate-kanpaina bat diseinatzea eta sare sozialetan eta eskolan zabaltzea.

Jarduerak: Herriko errotulazioak eta toponimoak aztertu baita ikastetxeko/herriko euskararen erabilera zein den jakiteko inkestak egin ere. Ondorioak atera.

Azken ataza: Lana eta lortutako emaitzak aurkeztuko dituzte klasearen aurrean edota ikastetxeko paraninfoan. Gainontzeko ikasleek arretaz entzun eta informazioa batu beharko dute entzundakoaz galdetegi txiki bat bete beharko baitute.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

Astean hirutan batuko naiz ikasleekin, denbora eskasa programazioak dakarren guztia burutu ahal izateko. Landuko ditugun eremuak hauexek dira:

- **Gramatika eta Ortografia**- Liburua (Ibaizabalen Hizkuntza trebatzen I ) /datzizko probak/ EGArako bidean jarri ikasleak.
- **Ulermena**- Idatzizkoa eta entzumenezkoa- Probak- Audioak eta Bideoak
- **Idazmena**- Idazlanak /Iruzkina
- **Ahozko jardunak**: Banakakoak, binakakoak eta taldekoak
- **Literatura**: Literaturaren hastapenetik XIX. mendera arte, irakurtzeko liburuak eta gure kazetaritzaren historia/gaur egun/ artikulugileak.
- Proiektuak ere garatuko ditugu

Era berean, ebaluazio bakoitzean liburu bat irakurriko dute ikasleek eta prozedura ezberdinak erabiliz gelan landuko dugu: ahozko aurkezpena, tertulia literarioa, ulermen frogak, txostena...etab.

- Baliabide analogikoak:

Alde batetik, arestion aipaturako testu liburuaz gain, aldizkariak, egunkariak...hau da, gure helburuak betetzeko behar izango ditugun argitalpenez ere baliatuko gara.

-Baliabide digitalak:

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Banakako, binakako zein taldeko lanak eta proiektuak bideratuko ditugunez, printzipio metodologiko ezberdinetako puntu hauetan oinarrituko gara:

**OHARRA:** Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

**Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

**Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

**HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

**Hezkidetza (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.

**Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

**Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

**IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Idazmena zuzentzeko irizpide bateratuak, mintegi guztiok azterketetan erabiliko duguna:

**HIZKUNTZA PROIEKTUA - ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK**

<b>ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK</b>	<b>%100</b>	<b>%0</b>
<b>ITXURA ETA ANTOLAKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Paragrafoak ondo antolatuak.</li> <li>-Garbi eta txukun dago</li> <li>-Izenburu egokia</li> <li>-Orri bazterrak daude</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Paragraforik ez dago</li> <li>-Narratsa.</li> <li>-Izenbururik ez dago</li> <li>-Orri bazterrik ez dago.</li> </ul>
<b>KOHERENTZIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Informazio egokia da helbururako.</li> <li>-Testu mota errespetatzen da</li> <li>-Kontraesanik eta errepikapenik ez dago</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Informazioa ez da egokia helbururako</li> <li>-Testu ezaugarriak ez ditu errespetatu</li> <li>-Kontraesanak eta errepikapenak daude</li> </ul>
<b>KOHESIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Paragrafo 1 ideia 1</li> <li>-Ideiak ondo lotuta daude (lokarriak/ antolatzaileak)</li> <li>-Puntuazioa zuzena da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Paragrafo nahasiak</li> <li>-Ideia solteak eta lokarrik ez</li> <li>-Puntuazioa desegokia da</li> </ul>
<b>ZUZENTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ortografia, lexikoa eta gramatika.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Akats nabarmenak: ortografia, lexikoa, gramatika</li> </ul>
<b>HELBURU KOMUNIKATIBOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Idazlanak mezua argi eta ondo transmititzen du. Testua ondo landua da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Idazlanak ez du mezua ondo transmititzen. Testua landu gabe dago.</li> </ul>
<b>BETEBEHARRAK</b> Lana orri zuri batean entregatuko dute. Lana epe barruan entregatuko dute.		

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idatzizko probak (gramatika/idazmena/ulermena)</li> <li>• Entzumena lantzeko probak</li> <li>• Ahozko adierazpenak</li> <li>• Proiektuak</li> <li>• Banakako zein binakako eta taldeko lanak</li> <li>• Koaderno digitala zein paperezkoa</li> <li>• Partaidetza</li> <li>• Teknologia erabilera egokia eta zuzena.</li> <li>• Jarrera (orokorra eta Euskararekikoa)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Notarako probak: 7 Ahozko proba: %20 Gramatika : %20 Idazlana: %20 Entzumena: %20 Testuaren ulermena: %20</li> <li>• Aparteko lanak: idazlanak...:1</li> <li>• Irakurtzeko eta lantzeko liburua: 1</li> <li>• Euskararen erabilera:1</li> </ul> <p><b>Ikasle bat, ikasturte osoko saioen %20ra justifikazio barik azaltzen bada, ebaluazio jarraia izateko eskubidea galduko du, eta ondorioz, irakasgaia ezohiko frogan aurkeztu eta gainditu beharko du.</b></p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	
<p>Etenbako ebaluazio sistema erabiltzen dugunez gero, ikasleak ebaluazio bat <u>ondo</u> aprobaten duenean, aurreko guztia gaindituztat joko dugu.</p> <p>Ohiko ebaluazioan kurtso osoan landutako edukiak baloratuko dira.</p> <p>Ezohiko deialdian ikasturte osoan landutako edukien inguruko azterketa egingo da.</p>	

**OHARRAK**

Plentzian, 2018ko urriaren 30ean

Mintegi burua: Nerea Mallona